BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4233

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 10ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, 2012. urterako euskal lankideentzako laguntzak ematen dituena.

Lehendakaritzako idazkari nagusiak 2012ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez (EHAA, 82. zenbakia, 2012-04-26koa), 2012. urterako euskal lankideentzako laguntzak iragarri zituen.

GLSFren konturako euskal lankideei laguntzak emateko modua arautzen duen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 10. artikuluan (EHAA, 104. zenbakia, ekainaren 3koa) –urtarrilaren 10eko 2/2006 Dekretuak (EHAA, 11. zenbakia, urtarrilaren 17koa) eta abenduaren 26ko 264/2006 Dekretuak (EHAA, 6. zenbakia, 2007ko urtarrilaren 9koa) aldatua– ezarritakoarekin bat etorriz, eta proposamenak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Kontseilu Errektorearen oniritzia jaso ondoren, hala jasota baitago 2012ko ekainaren 29ko bilkuraren aktan, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2012ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak ebazpen honen eranskinean agertzen diren entitateei esleitzea (laguntzen zenbatekoa eta ezaugarriak eranskinean jasota daude).

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrariarekiko auzietako bidea zabalik geldituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 10a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

ERANSKINA

EUSKAL BORONDATEZKO LANKIDEENTZAKO 2011N DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKARIAK

Expediente zk.	Erakunde eskatzailea	Lankidea	Herrialdea	Dirulaguntza
KOP-2012P2/0005	Mundubat Fundazioa	Arantza Larizgoitia Cortajarena	Kolonbia	35.737,94
KOP-2012PR/0007	Asociación Africanista Manuel Iradier	Ana Martín Aransay	Kongoko Errepublika Demokratikoa	18.000,00
KOP-2012P2/0003	Mundukide Fundazioa	Aritz Kanpandegi Berrotan	Brasil	35.758,79
KOP-2012P2/0006	Asociación Arpeko	Luis Simarro Vásquez	Bolivia	35.853,60
KOP-2012P2/0002	Asociación Zabalketa	Miguel Ángel Vela Casanova	Bolivia	36.000,00
KOP-2012PR/0008	Paz con Dignidad	Antonio Sandá Mera	El Salvador	18.000,00
KOP-2012PR/0002	Calcuta Ondoan ONGD	Ana Elisa Larrarte Bragança	India	17.993,14
KOP-2012PR/0001	Leonekin	Raquel Cortines González	Nikaragua	17.999,00
KOP-2012P2/0007	Asociación de Mujeres Argia	Garbiñe Delgado Raack	Mexiko	35.999,76
KOP-2012P2/0001	Fundación Proclade Yanapay	Juan José Liberal Fernández	Bolivia	36.000,00
KOP-2012PR/0006	Asociación Africanista Manuel Iradier	Erika Ruiz Redondo	Benin	18.000,00
KOP-2012P2/0004	Mundubat Fundazioa	Ramón Cucurull Cañellas	Guatemala	36.000,00
KOP-2012PR/0009	Paz con Dignidad	Jairo Marcos Pérez	Kolonbia	18.000,00
KOP-2012PR/0003	Haurralde Fundazioa	Ainara González Pérez	Mozambike	17.996,48